

## **INTSULINA GLARGINA PRESKRIBITZEN HASTEA.** **ABASAGLAR® LEHENENGO INTSULINA BIOANTZEKOAK.**

Medikamentuen Europako Agentziaren arabera (EMA), medikamentu bioantzeko bat jada existitzen den medikamentu biologiko baten («erreferentziako medikamentua») antzekoa izateko garatzen den medikamentu biologiko bat da. Bioantzekoak ez dira generikoen berdinak, generikoez egitura kimiko sinpleagoak baitituzte eta erreferentziako medikamentuen berdin-berdinak dira<sup>1</sup>.

Bioantzeko baten eta bere erreferentziako medikamentuaren printzipio aktiboa oinarrian substantzia biologiko bera da, nahiz eta hainbat ezberdintasun egon, bere izaeraren konplexutasuna eta ekoizpen-metodoak direla-eta. Erreferentziako medikamentua bezala, bioantzekoak nolabaiteko aldagarritasun naturaleko maila du. EMAk irizpide zorrotzak aplikatzen ditu medikamentu horien kalitatea, segurtasuna eta eraginkortasuna alderatzen duten azterlanen ebaluazioan. Baimentzen denean, horren eta bere erreferentziako medikamentuaren arteko aldagarritasunak eta aldeak segurtasunari eta eraginkortasunari eragiten ez dietela erakusten da<sup>1</sup>.

Oro har, medikamentu bioantzeko bat dosi berean erabiltzen da gaixotasun bera tratatzeko. Erreferentziako medikamentua hartzerakoan kontuan hartu beharko liratekeen neurri espezifikoak egongo balira, oro har, bioantzekoari ere aplikatuko zaizkio<sup>1</sup>.

Osasun Sailak eta Osakidetzak bioantzekoen erabilera sustatzen dute, eraginkortasuna hobetzen duelako eta osasun gastua murrizten laguntzen duelako. Medikamentu bioantzekoak (kalitatean, segurtasunean eta eraginkortasunean erreferentziako produktuen antzekoak diren medikamentuak) alternatiba baliokide bat eta ekonomikoagoak dira. Horrek osasun sistema publikoaren jasangarritasunean laguntzeaz gain, pazienteek terapia biologikoa jasotzen aukera hobea izatea ere dakar.

Horrek esan nahi du paziente-kopuru handiagoa tratatu ahalko zela dagoen aurrekontuarekin edo, hala erabakiz gero, liberatutako baliabideak beste tratamenduak finantzatzeko erabili ahalko liratekeela. Farmako bioantzekoak erabiltzeak Euskadiko Osasun Sistemaren jasangarritasunean laguntzen du eta beste farmako berritzaileen agerpena errazten du.

Orain dela gutxi intsulina glarginaren medikamentu bioantzeko bat merkaturatu da (ABASAGLAR® 100 U/ML soluzio injektagarria 3 ml-ko aurrez kargatutako 5 luma) diabetes mellitus bai helduetan, bai nerabeetan, bai bi urte baino gehiago duten umeetan tratatzeko<sup>2</sup>. Orain, ABASAGLAR® bioantzekoaren prezioa 57,71€ da, intsulina glargina LANTUS®arena berriz 76,96€, hau da, bioantzekoaren erabilera %23ko aurrezpena suposatzen du.

Intsulina glarginak intsulinen errezeten gastuaren % 54,8 sortzen du; horrek esan nahi du urtean 9,3 milioi euro inguru gastatzen direla. LANTUS® intsulina hartu beharrean ABASAGLAR® bioantzekoarekin tratamendua hasten duen paziente berri bakoitzagatik, osasun sistemak, urtean, 96 euro aurreztuko ditu, gutxi gorabehera. Paziente berri guztiek bere tratamendua ABASAGLAR® bioantzekoarekin hasiko balute, lehenengo urtean 156.000€ aurreztuko lirateke gutxi gorabehera.

LANTUS® intsulina glargina bere bioantzekoarekin ordezkatzek ekarriko lukeen aurrezpena kontuan izanik, tratamenduen eraginkortasunari eta segurtasunari eragiten ez dienez, **intsulina glarginarekin tratamendua hasten duten paziente guztien kasuan ABASAGLAR® bioantzekoa erabiltzea gomendatzen da.**

#### BIBLIOGRAFIA.

1. European Medicines Agency. Preguntas y respuestas sobre medicamentos biosimilares (medicamentos biológicos similares). 2012ko irailaren 27an. EMA/837805/2011. Eskuragarri hemen::[http://www.ema.europa.eu/docs/es\\_ES/document\\_library/Medicine\\_QA/2009/12/WC500020062.pdf](http://www.ema.europa.eu/docs/es_ES/document_library/Medicine_QA/2009/12/WC500020062.pdf)
2. ABASAGLAReko fitxa teknikoak.  
[http://www.ema.europa.eu/docs/es\\_ES/document\\_library/EPAR\\_-\\_Product\\_Information/human/002835/WC500175381.pdf](http://www.ema.europa.eu/docs/es_ES/document_library/EPAR_-_Product_Information/human/002835/WC500175381.pdf)